

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak aurrera egin dezan egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak hauek dira:

- **Ekoizpena**

Ongarria eta produktu (fruta eta barazki) ekologikoak ekoitziko ditugu.



- **Arazoak konpontzea**

Gehiegizko eskaria dela eta, gure mugetatik at dauden eskariak betetzeko, beste enpresa batzuk kontrataktuko ditugu, adibidez garraioarekin edota webgunearekin sortu daitezkeen arazoak konpontzeko batez ere.

Gure arteko gatazkak hitz eginez konponduko ditugu.

Gaur egungo egoera dela(Covid-19) eta edo beste arrazoi batzuegatik ematen diren baja edota hutsegiteak gure produkzioa eten ez dezaten, ordezeko batzuk izango ditugu.

Erreklamazioak edo bezeroek dituzten kezak entzuteko ardurā, pertsona zehatz batek izango du.

- **Plataforma edo sareko jarduerak**

Gure taldekide bat, sareko jardueren arduraduna izango da, teknologia berriei buruzko ezagutza baitu. Honekin batera, webgunearen diseinua antolamendua eta edukia eguneratzea bere betebeharretako bat izango da, betiere, gainontzeko taldekideon iritzia kontuan izanik.